

2. KASU PRAKTIKOA

X jaunak hautaketa-prozesu bat gainditu zuen B-ko Udalean (Bizkaia), eta, 2014-03-01ean, karrerako funtzionarioaren karguaz jabetu zen, administrazio orokorreko teknikariaren lanpostuan, departamentuburu gisa. Lanpostu-zerrendaren (LPZ) arabera, 24. lanpostu-mailako osagarria zegokion.

2016-06-30ean, X jaunak bateragarritasun-eskaera aurkeztu zuen jarduera pribatuak egiteko, baina ez zuen erantzunik jaso.

Handik gutxira, 2016-08-07an, 26. lanpostu-mailako osagarria zuen lanpostua lortu zuen lehiaketa bidez, baina desadostasunak izan zituen hierarkian bere gainetik zegoen Y jaunarekin, eta, denbora batera, X jaunaren ordainsari osagarriak murriztea proposatu zuen Y jaunak, adieraziz ordainsari horiek ez dutela eskuratutako eskubiderik sortzen.

2018-04-17an, beste lehiaketa batera aurkeztu zen X jauna, 29. lanpostu-mailako osagarria zuen zerbitzuburuaren plaza bat betetzeko. Z andreak ere parte hartu zuen prozesu horretan; lehiaketa bidez lortu zuen 29. mailako beste lanpostu baten titularra zen Z andrea, baina aldatu egin nahi zuen. Bi hautagai horiek bakarrik parte hartu zuten prozesuan, eta Z andreari esleitu zioten lanpostua, esperientzia handiagoa zuelako.

X jaunak, lehiaketaren emaitzagatik desengainatuta, zenbait lankide iraindu zituen eta ordenagailuari kalteak eragin zizkion, ukabilkada bat emanda. Hori dela eta, X jaunaren kontrako diziplina-espedientearen izapideak egin zituzten, eta haren jokabidea falta astuntzat hartuta, hilabeteko eginkizun-gabetze irmoa ezarri zioten, 2019-05-10etik aurrera betetzeko.

Egoeragatik aspertuta, A-ko Udalean zinegotzi izateko hautagai gisa aurkeztu zuen bere burua X jaunak 2019ko maiatzeko udal-hauteskundeetan, eta, urte horretako ekainean, zinegotzi-karguaz jabetu zen. Orduan, borondatezko eszedentzia eskatu zuen zerbitzuak ematen zituen udalean, interes partikularragatik, eta eman egin zioten, 2019-06-15etik aurrerako ondorioekin. Baina aspertu egin zen, 2019-08-01ean dimisioa aurkeztu zuen, eta, hurrengo egunean, B-ko Udalera itzultzea eskatu zuen. Lehen betetzen zuen lanpostua hutsik zegoenez, lanpostu berberera atxiki zuten behin-behinean, 2019-09-01etik aurrerako ondorioekin. Izendapen horrek indarrean jarraitzen du gaur egun.

GALDERAK:

1. Idatzi X jaunaren maila pertsonal finkatuari buruzko txostena, ebazpen-proposamen eta guzti, bai 1994-03-01erako –administrazio orokorreko teknikariaren lehen lanpostuaz jabetu zen unerako–, bai 2020-03-01erako –6

urtez lanpostu desberdinetan aritu ostean–. Horretarako, A1 taldea 21. mailatik 30.era bitarte doala jo behar da. Gehienez 5 puntu.

2. Erantzun galdera hauei, laburki eta arrazoiak emanaz:

2.1. Zer efektu eta ondorio ditu isiltasunak, X jaunak egindako bateragarritasun-eskaeran? (1,25 puntu)

2.2. Zer oinarri zituen X jaunaren nagusiak, ordainsari osagarriak murrizteko? (1,25 puntu)

2.3. Zer administrazio-egoeran gelditu ziren X jauna eta Z andrea, 2019an egindako lehiaketaren ondoren? (1,25 puntu)

2.4. Idatzi X jaunak B-ko Udalera itzultzeko egindako eskaerari eman beharreko erantzuna. (1,25 puntu)
